




Senegalgo haurrek primeran pasatu zuten Euskal Herriko eramandako jostailuekin.



Iritsi ziren egunetik oso harrera beroa egin zuten Mikelazulo elkarte lagunei.



Mikelazulo elkarte lagunek Senegalgo eskolen egoeraren berri izateko aukera izan zuten.

Ezer ez dutenen aurpegi alaia

Errenteriako Mikelazulo elkarte kideak Senegalen izan dira ekainean, kultur proiektuak garatzeko asmoz

Argazkiak: Karmele Urruzuno / Mikelazulo elkartea

Iragan ekainaren 1ean 15 laguneko koadrila bat abiatu zen Errenteriatik (Gipuzkoa) Senegal aldera (Afrika). Hala ere, ez ziren Senegalgo kosta ederrean turismo egitera joan, hango kultura ezagutze- eta esperientziak trukatzera baizik. Proiektua orain dela urte batzuk hasi zen. Mikelazulo azkeneko bost urteetan antolatzen duen Herrien Astea hasi zen proiektu

tua mamitzen. Mikelazulo elkarte kideek alor ugari landu zituzten Senegalen: musika, antzerkia, marrazkigintza, txotxongiloak...

Errenteriatik Senegalera joan zirenen artean, Karmele Urruzunok bi proiektu garatu zituen. Batetik, Senegalgo haurren eguneroko bizimoduaren kronika egin du, argazki bidez. Bestetik, marrazkiak trukatu ditu. Horretarako, Karmelek Lezoko Eskolako eta Groseko



Zuhaizti Eskolako ikasleek egindako marrazkiak eraman zituzten, eta itzuleran haur afrikarrenak ekarri ditu.



irudietan

Uda
Non dut
xukadera?

Urte osoa ikasten pasatu eta gero, azkenean, uda heldu da. Jende asko hondartzara joaten da egun hauetan. Baina nola aurkitu xukadera hainbeste jenderen artean?



Zozketa

Hauek dira 'Panso' liburuaren zozketaren irabazleak:

- Xabier Lamas (Sestao)
- Fatima Aldaz (Atarrabia)
- Mikel Perez (Donostia)
- Itsaso Lekunberri (Sestao)
- Aitana Ferrandiz (Sestao)
- Aitor Etxeberria (Gasteiz)

Zorionak!